



BOZERAMAILEEN BATZORDEAREN AKTA

ACTA DE JUNTA DE PORTAVOCES

2022ko urriaren 25ean, goizeko 11:00etan, egindako eta honako pertsona hauek osatutako Bozeramaileen Batzordeak:

La Junta de Portavoces, en sesión celebrada el 25 de octubre de 2022 a las 11:00 horas y con la presencia de:

Jon Iraola
Ana Telleria
Josu Mendicute
Gorka Errasti
Isabel Fernández

Jon Iraola
Ana Telleria
Josu Mendicute
Gorka Errasti
Isabel Fernández

Honako akordio hauek hartu zituen:

Adoptó los siguientes acuerdos:

1.- Elkarrekin-Podemos Eibar udal taldeak aurkeztutako mozioa Donostiako Onkologikoari buruzkoa.

1.- Moción presentada por el grupo municipal Elkarrekin-Podemos Eibar sobre el Oncológico de Donostia-San Sebastián.

Plenora ez eramatea erabaki da.

Decide no elevarse al Pleno.

2.- 2022 urteko Euskaraldiaren Adierazpena.

2.- Declaración Euskaraldia 2022.

Testua aztertu ostean, babestea adostu da eta azaroaren 2ko osoko bilkuran irakurtzea.

Tras analizar el texto, se acuerda aprobarlo y dar lectura del mismo en la sesión plenaria del 2 de noviembre.

Zentzu honetan, Adierazpena bozeramaile guztien artean irakurtzea erabaki da.

En este sentido, la Declaración será leída por todos/as los/as portavoces/as.



BOZERAMAILEEN BATZORDEAREN AKTA

ACTA DE JUNTA DE PORTAVOCES

3.- PSE-EE Eibar udal taldeak aurkeztutako adierazpen instituzional proposamena urriaren 31a dela-eta, Gerra Zibilaren eta Diktaduraren Biktimak Oroitzeko eta Omentzeko Eguna.

3.- Propuesta de declaración institucional presentada por el grupo municipal PSE-EE de Eibar, con motivo del 31 de octubre, Día de Recuerdo y Homenaje a las Víctimas de la Guerra Civil y la Dictadura.

Adostu da udal talde guztiak aztertuko dutela testua eta euren iritzia jakinaraziko dutela urriaren 28ko goizeko 10:00ak baino lehen.

Se acuerda que los grupos municipales analizarán el texto e informarán de su postura al respecto antes del viernes, 28 de octubre, a las 10:00.

4.- Juan Luis Tuarios Ormaechea jaunak aurkeztutako mozioa, terrazen eta balkoien udal- araudia aldatzeari buruzkoa.

4.- Moción presentada por el señor Juan Luis Tuarios Ormaechea para la modificación de la normativa municipal de terrazas y balcones.

Alkateak proposatu du mozioa Hirigintza sailera helaraztea, eduki juridikoa baitu eta, ondorioz, bertako aholkulari juridikoak aztertzekoa baita eskaeraren ondorioak zeintzuk diren adierazi dezan. Ondoren, testua Hirigintzako batzordean aztertzea proposatzen du. Zentzu honetan, alkateak proposatu du tramitazio hau burutzean mozioa berriz ere Bozeramaile Batzordean aztertzea, zehazki, azaroko ohiko osoko bilkura baino lehen egingo den bileran.

El alcalde propone que, puesto que la moción tiene una vertiente jurídica que es preciso analizar previamente por el departamento de Urbanismo, el texto se remita a dicho área, sea analizado por el asesor jurídico para ver cuál es la trascendencia de la petición y se informe al respecto en el seno de una comisión de Urbanismo. De este modo, una vez se lleve a cabo este trámite, el alcalde plantea que la moción sea nuevamente tratada en la siguiente sesión de la Junta de Portavoces inmediatamente anterior a la sesión plenaria del mes de noviembre.

Eibarko PSE-EE, Eibarko EH-Bildu eta Elkarrekin-Podemos Eibar udal taldeetako bozeramaileek adierazi dute ados daudela planteamentu horrekin, eta Eibarko EAJ-PNV udal taldearen bozeramaileak, aldiz, esan du ados dagoela, beti ere mozioa aurkeztu duena ados badago.

Los portavoces de los grupos municipales PSE-EE de Eibar, EH-Bildu de Eibar y Elkarrekin-Podemos Eibar afirman estar de acuerdo con el planteamiento, mientras que el portavoz de Eibarko EAJ-PNV asegura que apoyará el planteamiento siempre que el proponente de la moción también lo esté.



BOZERAMAILEEN BATZORDEAREN AKTA

ACTA DE JUNTA DE PORTAVOCES

Gai-ordenean jasotako puntuez gain, alkateak EUDEL elkarteak Azaroaren 25erako idatzitako testua eman die bozeramaile guztiei. Zentzu honetan, adostu da udal taldeek testua aztertuko dutela eta bakoitzaren iritzia jakinaraziko dutela urriaren 26a baino lehen.

Horrela, Elkarrekin-Podemos Eibar udal taldearen bozeramaileak eskatu du onartutako testua urriko osoko bilkuraren gai-ordenaren bigarren puntuaren irakurtzeko.

Eta goizeko 11:20ak izanik eta gainerako gairik ez dagoenez, alkateak bilerari amaiera eman dio.

Fuera de los puntos del orden del día, el alcalde entrega a todos/as los/as portavoces el texto que con motivo del 25 de Noviembre ha elaborado EUDEL. En este sentido, se acuerda que los grupos municipales analizarán el texto e informarán, para el miércoles, 26 de octubre, de su postura.

De este modo, la portavoz de Elkarrekin-Podemos Eibar solicita que el texto aprobado sea leído como segundo punto del orden del día de la sesión plenaria del mes de octubre.

Y siendo las 11:20 horas, y no habiendo más asuntos que tratar, el alcalde levanta la sesión.